

Eleiza gizalegezko lanaren alde' ekimenaren agiria martxoaren 8a dala-eta Emakumeen duintsunaren alde. Gizalegezko lana, eskubidea, ez pribilegioa

Lanaren eremuan, batez be emakumeek jasaten daben desbardintasuna, esplotazioa eta behin-behinekotasuna salatu gura dogu 'Eleiza gizalegezko lanaren alde' ekimenetik. Ezkutuko ekonomiak miloeka emakume langileren ahulezia betikotu egiten dau, oinarritzko eskubideak eta bizi-baldintza duinak ukatuz.

Laneko zuzentasunaren eta bardintasunaren aldeko garrasia

Lana, hil edo biziko da giza duintasunerako. Ezkutuko ekonomiak ukatu egiten deute eskubide hau emakumeei, lanpostu zuzen eta egokiak izatea eragozten deuselako. Behar-beharrezkoa da arazo hau agenda politiko eta sozialetan lehenestea. *"Lana funtsezko eskubidea da pertsonarentzat, eta baita ondasuna be: ondasun baliagarria, duina, bere duintasunari dagokion eta giza duintasuna agertu eta gehitu egiten dauan ondasuna"* (CDSI, 287)

Emakumeak ezkutuko ekonomian: Errealitate ezkutua

Espainian, ezkutuko ekonomia, BPGaren %16 inguru da, eta oso gaxa da portzentaje horretan emakumeak zehatz-mehatz ze partaidetza dauan kalkulatzea, baina, halanda be, azterlan guztiak bat datoz kasu gehienetan gehiengoa dala esatean. Etxe-langile, soldatapeko, zaintzaile eta garbitzaile askok kontratu eta gizarte babes barik lan egiten dabe, lanaldi luzeei, soldata baxuei eta kaleratze arbitrario eta bidegabeei aurre eginez. Egoera are eta larriagoa da emakume etorkinentzat, oztopo administratibo, arrazakeria eta xenofobiaren eraginez, derrigorrez onartu behar izaten dabez-eta lan informalak. Gainera, askok eta askok pertsonen salerosketa eta sexu-esplotazioa jasateko arriskua izaten dau.

Aldaketa eraldatzailerako proposamenak

Eleiza gizalegezko lanaren alde' ekimenetik ekintza zehatzak proposatu gura doguz ezkutuko ekonomiari aurre egiteko eta emakume langileen egoera hobetzeko:

1. **Lanaren erregularizazioa:** Etxeko lanak, nekazaritza-lanak, zerbitzu-lanak eta antzeko lanpostuak legezko egin, oztopo administratiboak deuseztatuz eta laneko eskubideak babestuz.
2. **Legeen ikuskatzea eta betetzea:** Lan-ikuskapenerako jardunbideak sendotu eta langileak esplotatzen dabezanak zigortu, eta laneko eskubideei buruzko argibide-kanpainak egin.
3. **Etorkinen erregularizazioa:** Bizileku- eta lan-baimen zuzenak bermatu etorkinentzat, ekonomia zuzenagoaren alde eginez.
4. **Heziketa eta gaikuntza:** Heziketa-egitarauak garatu emakumeek kalitatezko lanpostuak jadetsi daiezan eta, aldi berean, euren antolaketa eta aitzindaritza sustatzeko.
5. **Pastoral eta gizarte akonpainamendua:** Eleizak aurrerantzean be akonpainamendua eskaini behar deutse laneko eskubideak urratzen jakezan emakumeei, entzunez, lagun eginez eta bidegabekeriak salatuz, hau da, ahuleziatzko egoeran dagozan pertsonen aldeko konpromiso ebanjelikoa agertuz.
6. **Lana eta familia bateragarri egin eta ardurakidetasuna sustatu:** Lana eta familia orekatuko dabezan politikak sustatu, esate baterako, guraso-baimen bardinak eta zaintza-zerbitzu eskuragarri eta kalitatezkoak.

Itxaropenerako deia

Martxoaren 8a, aukera ona da gizarte zuzentasunaren aldeko konpromisoa barritzeko. Jesusen jarraitzaile lez, ekonomia ezkutua eta bazterkeria eta pobretasuna eragiten dabezan egiturei aurre egin behar deutsegu ausardiaz eta itxaropenez. Frantzisko Aita Santuak *"Itxaropenean erromes"* Jubileua deitzean adierazo ebanez, fede eta itxaropenaren indar eraldatzailea berreskuratu behar dogu.

Posible da mundua eraldatzea, emakumeak duintasunez bizi daitezan eta lana bizi betearen iturri izan daiten. Jarraitu daigun guztiontzako gizalegezko lanaren aldeko eta inor ikusiezin izango ez dan munduaren aldeko borrokan.

Gizalegezko lana, eskubidea, ez pribilegioa

Manifiesto de Iglesia por el Trabajo Decente con motivo del 8 de marzo Por la dignidad de las mujeres. Trabajo decente, derecho, no privilegio.

Desde la iniciativa Iglesia por el Trabajo Decente denunciaremos la desigualdad, explotación y precariedad que afectan especialmente a las mujeres en el ámbito laboral. La economía sumergida perpetúa la vulnerabilidad de millones de trabajadoras, negándoles derechos fundamentales y condiciones dignas de vida.

Un grito por la justicia laboral e igualdad

El trabajo es clave para la dignidad humana. La economía sumergida niega este derecho al privar a las mujeres de empleos justos y equitativos. Urge que esta problemática sea priorizada en las agendas políticas y sociales. *“El trabajo es un derecho fundamental y un bien para el hombre: un bien útil, digno, que corresponde a su dignidad, que expresa y acrecienta la dignidad humana”* (CDSI, 287)

Las mujeres en la economía sumergida: Una realidad invisible

En España se calcula que la economía sumergida supone en torno al 16% del PIB y es muy difícil calcular cuál es la participación exacta de la mujer en ese porcentaje, sin embargo, todos los estudios coinciden en que es mayoritaria en todos los casos. Muchas empleadas del hogar, jornaleras, cuidadoras y limpiadoras trabajan sin contratos ni protección social, enfrentando jornadas extensas, salarios bajos y despidos arbitrarios. La situación es aún más grave para las mujeres migrantes, quienes, debido a barreras administrativas, racismo y xenofobia, se ven obligadas a aceptar empleos informales. Además, muchas enfrentan riesgos de trata y explotación sexual.

Propuestas para un cambio transformador

Desde Iglesia por el Trabajo Decente proponemos acciones concretas para combatir la economía sumergida y mejorar la vida de las trabajadoras:

1. **Regularización laboral:** Formalizar empleos en sectores como el doméstico, agrícola y de servicios, eliminando barreras administrativas y protegiendo los derechos laborales.
2. **Inspección y cumplimiento de leyes:** Fortalecer los mecanismos de inspección laboral y sancionar a quienes explotan a las trabajadoras y trabajadores, acompañados de campañas informativas sobre derechos laborales.
3. **Regularización de migrantes:** Garantizar permisos de residencia y trabajo justos para las personas migrantes, contribuyendo a una economía más equitativa.
4. **Educación y capacitación:** Implementar programas formativos para que las mujeres accedan a empleos de calidad, fomentando también su organización y liderazgo.
5. **Acompañamiento pastoral y social:** La Iglesia debe continuar apoyando a las trabajadoras que sufren vulneraciones de derechos laborales, escuchándolas, acompañándolas y denunciando injusticias, reflejando el compromiso evangélico con las personas vulnerables.
6. **Conciliación y corresponsabilidad:** Promover políticas que equilibren la vida laboral y familiar, como permisos parentales igualitarios y servicios de cuidado accesibles y de calidad.

Un llamado a la esperanza.

El 8 de marzo es una oportunidad para renovar nuestro compromiso con la justicia social. Como seguidores y seguidoras de Jesús, debemos enfrentar estructuras de exclusión y pobreza como la economía sumergida, con valentía y esperanza. Tal como expresó el Papa Francisco al convocar el Jubileo 2025 bajo el lema *“Peregrinos de esperanza”*, estamos llamados a redescubrir la fuerza transformadora de la fe y la esperanza.

Es posible transformar un mundo donde las mujeres vivan con dignidad y el trabajo sea una fuente de vida plena. Sigamos luchando por un trabajo decente para todas y todos, y por una sociedad en la que nadie sea invisible.

Trabajo decente, derecho, no privilegio